

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak aurrera egin dezan, garrantzitsua da barrutik antolaketa ona eta lan-banaketa argia izatea. Taldekide bakoitzak bere rola behar du, ondo definitua, eta bere betebeharrak bete, proiektua ez dadin gelditu edo kalitatea jaitsi. Funtsezkoa da, halaber, lan-faseak planifikatzea eta epe labur, ertain eta luzerako helburu errealistak finkatzea. Plan argi bat ez badugu, proiektua erraz tratatu daiteke.

Gainera, finantza-administrazioa arduratsua behar dugu, Funtsezkoa da gastuak zaintzea, finantzaketa planifikatzea eta dirua ondo gastatzea. Aurrera egiteko, merkatu-azterketak ere egin beharko dira, erabiltzaileen beharrak ezagutzeko, zer nahi duten jakiteko eta zerbitzua nola hobetu daitekeen ikusteko. Etengabe gaitzitzea funtsezkoa izango da proiektuak denborarekin funtzionatzen jarrai dezan.

Eta bestetik, etengabeko komunikazioa bermatu behar dugu, taldearen barruan eta erabiltzaileekin ere. Iritziak, kritikak eta iradokizunak entzuteak aukera emango du akatsak zuzentzeko eta proiektua egoera berrietara egokitzeko. Aurrera egin, eta ez gelditu, berritzea funtsezkoa da, teknologia eguneratzea beharrezkoa delako eta lehiakideei oso adi egon.

Laburbilduz, gure proiektua antolaketarekin, berrikuntzarekin, administrazio ekonomiko on batekin eta etengabeko hobekuntzarekin egiten du aurrera.

